


B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

ORTIZ ECHAGÚE
BALENCIAGA

IKATZA ETA BELUSA— CARBÓN Y TERCIOPELO

Begiradak herri-jantziari
Miradas sobre el traje popular



Ikatza eta belusa

Ortiz Echagüeren eta Balenciagaren begiradak herri-jantziari

Urria 6 / 2016 — Maiatza 7 / 2017

Ikatza eta belusa-k erreferentzia egiten die erakusketa honetako izen propioen ogibide eta trebetasunekin erabat lotutako elementuei, bai eta jantzi herrikoia erabiltzen eta kontserbatzen dituen landa-giroko gizartearen laztasunari eta soiltasunari, eta goi-mailako joskintzan biltzen diren eliteen sofistikazioari eta dotoretasunari ere.

Ikatza eta belusa-k jantzi tradizionalen bi aurpegiak irudikatzen ditu: eguneroko lanerako janztea eta jaietarako janztea, eta biak ala biak testuingurutik ateratzea hiriko bizimoduan.

Ikatza eta belusa-k harremanetan jartzen ditu, batetik, Espainiako arropetako kolore beltz historikoa, mila ñabarduren kolore beltza, Balenciagarengan hain ohikoa zena, eta, bestetik, Echagüeren teknikan agertu ohi zen kolore beltz ehunduraduna.

Ikatza eta belusa-k parez pareko solasean jartzen ditu bi sortzailek objektu kultural beraren gainean izandako begiradak, bai eta nola euretako bakoitzak, bere diziplinatik, gaurkotu egiten duen objektu hori, denboraz kanpoko izaera emanez.

Carbón y terciopelo

Miradas de Ortiz Echagüe y Balenciaga sobre el traje popular

6 Octubre / 2016 — 7 Mayo / 2017

Carbón y terciopelo alude a elementos ligados de forma inextricable a los oficios y saber hacer de los nombres propios de esta muestra, así como a la rudeza y sencillez de la sociedad rural que hace uso y conserva el traje popular y la sofisticación y elegancia de las élites que se envuelven en alta costura.

Carbón y terciopelo representa las dos caras de la indumentaria tradicional: el vestir para el trabajo cotidiano, y el vestir para la fiesta y la descontextualización de ambas en la vida urbana.

Carbón y terciopelo relaciona el negro histórico del atuendo español, el negro de mil matices, tan recurrente en Balenciaga y el negro con textura de la técnica echagüina.

Carbón y terciopelo presenta en diálogo las miradas de dos creadores sobre el mismo objeto cultural, y la forma en la que cada uno de ellos, desde su disciplina, lo actualiza, confiriéndole una cualidad atemporal.

Ekoizpena/Producción: **Cristóbal Balenciaga Museoa**

Komisarioak/Comisariado: **Ana Balda** komisarioa/comisaria, **Igor Uria** komisariokidea/comisario asociado



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ELKARRIZKETAK / CONVERSACIONES
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
DSS2016.EU

www.cristobalbalenciagamuseoa.com